

Matematika oposizioak elkarrekin prestatzen: aukezpenak, idatziz zein ahoz, eta problemen ebazpena



13.Jan - 29.Feb 2020

Cod. @4-20

Mod.:

Online

Edition

2020

Activity type

Long-term online course

Date

13.Jan - 29.Feb 2020

Languages

Basque

Academic Validity

60 hours

Organising Committee

Description

Ikastaro honek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko baliozkotzea du (1968170044 kod.) unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat.

- 60 ordu akademikoak

- Hasiera: 2020/01/13 Bukaera: 2020/02/29

Tarifa bakarra: 120 euro

Hizkuntza ofiziala: Euskera

Matematika oposizioetan hautagai aurkezteko asmoa duten matematika irakasleen ahalmen eta trebetasunak garatzeko ekimena eta alderdi didaktikoetan, matematikoetan eta problemen ebazpenen koetan aurrera pausoak emateko.

Objectives

Oposizioetan erabili beharreko ezagutzak freskatu eta trebetasunak landu.

Komunikazio gaitasunak areagotzeko norberaren praktikak eta kideenak aztertu lankidetzan giroan eta sinergiak bilatuz.

Baliabide didaktikoak, matematikoak eta problemen ebazpenerakoak partekatu norberaren prestakuntzarako eta aurkezpenetan zein azterketetan erabiltzeko.

Problemen ebazpena matematikaren muina eta oposizioetako giltzarria dela ohartzea eta jabetzea.

Problemen ebazpenerako oinarrizko estrategiak ezagutu eta landu.

Course specific contributors



Program

13-01-2020 / 19-01-2020

1.- Ikastaroaren eta partaideen aurkezpena: helburuak, edukiak, asmoak, nahiak, prozedurak...

Gai honetan ikastaroaren helburuak eta edukiak aurkeztuko ditugu eta partaideen bideo-aurkezpenak sustatu. Ikastaroan bideoen erabilera aurkezpenak egiteko ohiko modua izango denez hasiera-hasieratik horri eutsiko diogu sortu daitezkeen zailtasun teknikoak hasieratik ebatziz. Bukatzeko, Moodlearen aukeren aurkezpena egingo dugu Foroen erabileraren onurak mahai gaineratzen eta horrelako plataformek online ikas-irakaskuntzarako eskaintzen dituzten aukerak aipatuz.

20-01-2020 / 26-01-2020

2.- Oposizioetako deialdia eta legedia: Heziberri 2020

Heziberriren markoan eta Matematika-curriculumean jarriko dugu fokoa oraingoan. Matematikarako konpetentziaren definizioa eta osagaiak. Matematika konpetentziaren ezaugarriak eta alderdiak. Arloaren eta ikasgaiaren ikuspegia. Matematikaren aukerak zehar-konpetentziak zein konpetentzia espezifikoak garatzeko. Zein metodologia sustatzen den eta ebaluazio erizpideak eta lorpen adierazleeen zehaztapena.

27-01-2020 / 02-02-2020

3.- Baliabide metodologikoak, manipulagarriak zein digitalak, eta ebaluazioa

10 baliabide manipulagarri edozein matematika irakaslek ezagutu eta erabili beharko lituzkeenak. Matematika tailerrera ikuspegi orokora. Baliabide digitalak: simulazioak eta interaktiboak, kontzeptu konplexuak ulertzeko eta integratzeko aukera bikainak.

03-02-2020 / 09-02-2020

4.- Arazo egoerak eta unitate didaktikoak: egitura eta adibideak.

Arazo-egoera zer den eta horien erabilera matematikaren irakaskuntzan. Ebaluazio diagnostikoak eta bertan agertzen diren egoerak. Maila desberdinetarako arazo-egoeren adibideak. Unitate didaktikoak zer diren eta horien erabilera matematikaren irakaskuntzan. Maila desberdinetarako unitate didaktikoen adibideak.

10-02-2020 / 16-02-2020

5.- Problemen ebazpena: sarrera, baliabideak...

Problema motak eta ebazpen estrategiak. Ebazpenaren faseak.

17-02-2020 / 23-02-2020

6.- Problemak ebazten: estrategiak eta adibideak (1/2)

Bigarren ehezkuntzarako problemak.

24-02-2020 / 29-02-2020

7.- Problemak ebazten: estrategiak eta adibideak (2/2)

Aurreko oposizioetako problemak: gaiak, esparruak, zailtasunak...

Directed by



José Manuel López Irastorza

Berritzegune Nagusia, Lasarte-Oriako sedea, Matematika aholkularitzaren kolaboratzailea

Prestakuntza: Magisteritza (1980-1983), Biologia (1983-1986) Lan-jardunbidea: Bigarren hezkuntzako irakaslea (1986-2002), hezkuntza-aholkularia (2002-2018). Blog Mateguay blogaren editorea: <http://mateguay.blogspot.com.es/> // Formación académica: Magisterio (1980-83), Biología (1983-1986) Trayectoria profesional: Profesor de Secundaria (1986-2002) Asesor educativo (2002-2018). Editor del blog: <http://mateguay.blogspot.com.es/>



Jose Luis Ramos San Julian

Arrasateko institutua, Profesor

Matematika Zientzietan lizentziatua (Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa) eta Magisteritzan diplomatua (zientziak). Matematika irakaslea egun Arrasateko institutuan. Irakasleen formatzailea problemen ebazpenean. Egin Matematika <http://eginmatematika.blogspot.com.es/> blogaren eta Sitesa: [https://sites.google.com/site/egingodugumate/ebaztek o-problemak](https://sites.google.com/site/egingodugumate/ebaztek-o-problemak) sitearen editorea. // Licenciado en Ciencias Matemáticas (Estadística e Investigación Operativa) y diplomado en Profesorado de EGB (especialidad ciencias). Profesor de matemáticas en el Instituto de Arrasate. Formador de profesores en el ámbito de la Resolución de problemas. Editor del blog: <http://eginmatematika.blogspot.com.es/> y del Sitesa: [https://sites.google.com/site/egingodugumate/ebaztek o-problemak](https://sites.google.com/site/egingodugumate/ebaztek-o-problemak)

Registration fees

REGISTRATION	UNTIL 13-01-2020
Single rate	120,00 EUR